

Jolasa

Bertso marrazkia

Gure zaletasunen artean al dago marraztea?

Jolas gaitezen picassokeriatan!

Kopletan deskribatzen zaiguna ahalik eta zehatzena marraztea

izango da gure erronka.

Jarri arreta detaile bakoitzari!

Kopla txikia

Doinua: Goizian goiz jeikirik

- 1 Paisaia bat da eta jar zazu **arreta** pixkanaka marraztu behar duzu **eta**.
- 2 Orrian behealdea belardi bat **denez** koloreztatu zazu zuk berde **ilunez**.
- 3 Hartu marroia eta ezkerreko **aldean** egin zazu etxe bat belardi **gainen**.
- 4 Etxeak ezkerrean du bere **atea** marraztu behar duzu karratu, **tentea**.
- 5 Ta hiru leiho ditu: bi goian, bat **behean** horiz margotu behar dira **barrean**.
- 6 Teilatu eskuinean tximinia **dauka** ke grisa botatzen du **zirriborratuta**.
- 7 Belardian gainean ta **eskuinetara** etxearen neurriko zuhaitza ere **bada**.
- 8 Enborra marroia du berdeak **orriak** ta hostoen artean gerezi **gorriak**.
- 9 Belardian gainean tente, zortzi **lore** petaloak naranja ta zurtoinak **berde**.
- 10 Zuhaitz gainean, beltzez, hegaka lau **kaio** ta bakoitzari "eme" (m) forma hartzen **zaio**.
- 11 Ezkerreko ertzean horiz **eguzkia** bederatzi marrekin bota du **izpia**.
- 12 **tralara-lala, tralara-lala, tralara-lara-lara, ZER MODUZ ATERA DA ZURE MARRAZKIA?**